

y  $R=0,371$ :  $79,4-R=79,02$  y  $78,6+R=78,97$ , lo que nos indica la dualidad de raza, pues aun teniendo en cuenta la oscilación del valor medio, siempre quedaría  $79,02$  mayor que  $78,97$ .

DR. TELESFORO DE ARANZADI.

(Se continuará)

1896

## Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XV-garren urtea)

# KUBAKO GURE ANAYAI

### Larogei pezetako sari bat eta bitezarra Mondragoin irabazitako moldaera

Gure lenengo guraso, aita  
Adan ta ama Eba-ren  
lendabiziko semeak, Kain  
ta Abel izan ziraden;  
bañan kondairan ikusten danez  
biak anai sortu arren,  
beñere eziñ bizitu ziran  
chit adiskide elkarren:  
orra guda ta gizon iiltzeak  
sustraya nondik dakarren.

¿Ez aldiruri gauza gogorra,  
izanik bi anai bakar,  
nola etziran oyek irichi  
obeto artzera elkar?  
Kain gaiztoak Abel prestua

ill zuen al beziñ azkar;  
geroztik onuntz esan liteke  
bizi gerala su ta gar;  
oraindik ere zuzendutzeko  
ichura guchicho dakar.

Mundutar dena ibillitzeko  
geroztik, esan dan gisan,  
guk ez dakigu zergatik, baño,  
nonbait ala komeni zan:  
iya seimilla urtez ondoren  
begira nola gabiltzan;  
bañan beartu izan geranez  
gerran edo gudaritzan,  
españitarrak añaikorikan  
ez da beste iñor izan.

Nork entzun ez du chit antziñako  
 Altabiskarko kantua?  
 Zeñek ez daki Orreagako  
*Carlo Magno-ren* patua?  
*Navas de Tolosa-ko* muslim-en  
 indartza purrakatua,  
 ta Numanzian eta Sagunton  
 espagnolai gertatua?  
 Gauz oyen jabe dan dierria<sup>1</sup>  
 izan zagun maitatua.

Ezaguturik *Guzman el Bueno-k*  
 zer egin zuen Tarifan,  
 atzerritarrak ikusten dira  
 oraindik arriturikan;  
 eta *Isabel la Católica-k*,  
 moroak Granadatan  
 biraltzen ditu, Kristandadea  
 indartutzeagatikan,  
 gero Kolon-i lagundutzeko  
 bere patrikaratikan.

Arerioak edo etsayak  
 gu estali nai arren loiz,  
 Españaiko leoi portitza  
 nol'ezdan izutu iñoiz,  
 ez du galdetzen zenbat diraden,  
 nondik datozen edo noiz;  
 sorterrri ontan beti bizirik  
 daude Belarde ta Daoiz,  
 zeren biotza azitzen zayon  
 dabillinari arrazoiz.

Isil-erazten dizkit gauz asko  
 bukatu bearrak laster:  
 espagnol denak orla izanik

euskaldunak-gatikan ¿zer  
 esan nezake, oyen laguntzik  
 gabe iya iñon ezer  
 egiñ ez bada? Ematen diot  
 Jaungoiko onari esker  
 guretzat gorde dituelako  
 orrenbeste gauza eder.

Zenbat eraunsi<sup>2</sup> sartu diraden  
 Españaiko errietan,  
 asko irichi izandu dira  
 agintzera egietan,  
 Ebro-tik aruntz ezagutuzten  
 ditugun alderdietan;  
 bañan Aitorren arrazak bere  
 lurra maite du ziñetan  
 ta euskaldunak libre bizitu  
 dirá beren mendietan.

Nola Erromak mundu goyena  
 arturik zeukan mendean,  
 guztiz sinismen aundia zuen  
 bere gudari jendean;  
 ta *Octavio Augusto* asi  
 zan euskaldunen galdean,  
 esanaz bere gerragizonai:  
 —¡Oraindik libre daude an!  
 Ea ekarri zaizkidatzute  
 auntzak bezela taldean.—

Lekobide zan buruzagia  
 orduko euskaldunena,  
 eun urte eta anbat geiago  
 igaroak zituena;  
 gero Otzoal, bere lagunak  
 agintzen zuen urrena;

(1) Nación.—(2) Invasión.

Lartaun gaztea oyen esana  
zintzo-egiten zuena,  
ta ondorengo jende guztiya  
ayen antzekoa dena.

Sartu ziraden erromatarrak  
gure lur maite ontara,  
bañan etzuten euskaldunikan  
memperatzen iñontara;  
Lekobide ta bere mutillak  
belaun bat lurrean para  
eta tiratzen zuten, etsayak  
illtzen zituen *dardará*;  
azkenerako berak joan bear  
izan zuten Erromara.

Erromatarrak, talde gogorrek  
lur asko zuten berendu,  
ta Lekobidek zarrai deituaz  
onela itzegiten du:  
Jáunak, Ernion denok luzaro  
eziñ gintezke mantendu;<sup>1</sup>  
nere iritziz obe genduke  
alperrik gaudenak kendu  
ta sasoikoak saya litezke  
ori egingo bagendu.

Gerrari zarrak erantzun zuten:  
—Ederki dago gaur ori,  
eta bertatik prest gaude emen  
denok jarraitzeko zuri:  
gu Ernioko aitzetan beera  
bosteun gizon buruzuri  
amil gaitezen, eta lenbailen  
geren odola išuri,  
ondorengorik erromatarren

mende ez dedin erori.

Beren semeak artzen bazuten  
erromatarren morrontza,  
emazte eta alabentzako  
seguru zetorren lotsa:  
aiton ayentzat au pensatzea  
aiñ zan samiñ ta zorrotza,  
ion naitasunen indarrarekin  
alcharik beren biotza,  
ondorengoak bizi zitezen  
autu zuten eriotza.

Erromatarrak egonagatik  
oituak ateratzen jaun,  
ikusirikan ezin zutela  
lur ontan geyago iraun,  
esan zioten, ayen errira  
bost ogeikoren kontra eun  
zijoazela: eta arrurik  
larogei t'emeretzi *laun*  
joan zan ta gallen an gertatuzan  
Oyarzungo seme Lartaun.

Miñberatzea gerta liteke  
zenbait egiak esanez:  
bañan ez dute kejakizunik  
Aitorren semeen lanez:  
gure dierri edo patria  
beartu izandu danez,  
naiz serbitzeko, orain bezela  
premesia—rik<sup>2</sup> izan ez,  
Euskal-erriak lagundu dio  
bere odola emanez.

Noiznai arkitu izandu danez

(1) Bazkatu.—(2) Obligaziorik.

España bearrean,  
 naiz emen bertan edo urruti,  
 munduaren baztarrean;  
 leku beroan edo otzean,  
 itsasoan, legorrean,  
 beti azaldu zayo laguntza  
 kantauri tarren lurean,  
 ta euskaldunak ikusi dira  
 beste guztien aurrean.

Tubal-en kastak eziñ kantaala  
 oroimen badadukazki;  
 mundu guztiak aitortutzen du,  
 ez da esatea aski:  
 Okendo, Lezo ta Idiakez  
 Churruka eta Legazpi,  
 ta beste askok duten omenik  
 etzuten izango noski  
 beren ekintza mirarietan  
 akindu<sup>1</sup> baziran gaizki.

Orañ, azkenik Españaik chit  
 berea duen Habana,  
 erregiñ batek Kolon-en bidez  
 eskuperatu zubana,  
 da lotsik eta zentzurik gabe  
 gure kontra alcha dana.  
 Nonbait ezdaki, españitarrak  
 bildutzean elkargana,  
 beti arrazoiz guazela, ta  
 bentzut-eziñak gerana.

Kubako kastak: ¿Orain dirala  
 lareun urte, zer ziñaten?  
 Piñtien gisa, jazkairik gabe  
 biluzgorri zebiltzaten;

ta erakutsi ondorenean  
 jazten, izketan ta jaten,  
 ari zerate zeren amari  
 garraztasunak ematen!  
 Ikusiko da beiñ betirako  
 aspertzen ote zeraten.

Ondo dakigu, oraingo ontan  
 etzeratela bakarrak,  
 zirikatutzen zaituztelako  
 atzetikan yankee-tarrak,  
 egazti arraparien gisa  
 luzaturik atzaparrak;  
 bañan leoya ez du izutzen  
 basakatuen kalparrak;  
 eguzkitara guk aterako  
 ditugu zuen zatarrak.

¡Zenbat guraso zuekgatikan  
 gaur negarra dariola  
 arkitutzen dan, ikusirikan  
 semea falta zayola!  
 ¡Zenbat emazte eta andregai  
 eziñ alaituz iñola.  
 Ta ala ere ezagutzen da  
 ez dizutela ajola;  
 errespetatzen ez dezutenak  
 inozenteen odola!

Agur gudari españitarrak,  
 batez ere euskaldunak;  
 zuei begira gaude, guraso,  
 senide eta lagunak;  
 gerok urruti egonagatik  
 biotza or daukagunak;  
 beti kontaktzen gure ondotik

(1) Portatu.

falta zeraten egunak,  
bizi geraden arte beñere  
aztuko etzaizkigunak.

Ikusirikan «ama» negarrez,  
semeai laguntza eske,  
¿geren odola eskeñi gabe  
gu nola egon gintezke?  
Ez, ori eziñ gerta liteke,  
beldur gabe bageundezke,  
beragatikan, anai leyalak,  
beri sayatu zaitezte,  
progratu dediñ bageradela  
izena degun ainbeste.

Seme maiteak, joan zeratenak  
gerrara Kuba aldera,  
proga zazute gure sorterri  
au dala lengoa bera;  
eta omen au zabaldurikan

laster mundu zabalera,  
otoitz ta malkoz apaindurikan  
illtzen diranen galera,  
aurki atozte zai daukazuten  
amachoren magalera,  
goititurikan milla lekutan  
bentzutu duben bandera.

Beraz manbisak (ja, ja, ja) guri  
artu nai digute goya?  
Oyek oiñpean sartu nai dute  
Españiako leoya?...  
«Mundu guztia begira dago  
»eta oraiñ da sasoya,  
»erakusteko aukeratutzen  
»degula betiko oya,  
»botatzen utzi baño lenago  
»geran aurpegira loya;  
»zergatik gure alde dauzkagun  
»indarra ta arrazoya.»

PEDRO M.<sup>a</sup> OTAÑO.

